

## BIRIGARROA

*Aurretikoak, tantai zale bait ziran, aritzak euki oi ten etxetik urbil xamar. Nik ere orrela dut bat, nok jakin noiz landatua. Onen adar-gaillian kantatzen dit sarri birigarroak, batez ere udaTena irixtean. Gaur ere bai.*

**Doiñu:** «Ftxasoan laño dago. ,,».

Lorez dager udaberri,  
zuria ta ameslari;  
nere lurra —oiu, lore—  
abes oska zaizu ari.

Zelaian dut aritz aundi,  
beti duzu oztin-zale;  
oro biran besarka naiz,  
dirudi biotz-maitale.

Egunez du birigarrok  
soiñu jotzen adarrean,  
gauetz berriz zeru intzak  
du laztantzen galtzarrean.

Ene aritz soiñulari,  
oztin-miñez agoana!  
pozgarri zait ire kezka,  
adar-zirkin ta laztana.

Zillarrezko begi-dizdiz  
maite-miñen estalpea,  
goizetik birigarroak  
dik txit eskertzen maitea.

Izarraren eresi lez  
ikutzen dik maite-doiñu,  
bakartade ixiltsuan,  
tobera leun, bizi oiu.

Kezkatan duk ipar aula  
ire soiña musukatuz,  
kezkaz baita birigarro  
ire antsiz, ire uluz.

Nik ere dut kantu kantaz  
nere biotz unkitua  
—birigarro! , aritz eder! —,  
xamur tantoz itzatua.

Jarrai ortxe biok beti  
zeru-argiz txunditurik,  
abes goxoz, txinta emez  
inguruak zauskaturik.

## ORO EDER

*Joana dugu neguaren agintea. Irripar loratzen asia da udabernia; abeslari daude txoriak, goiza urratu ala; nere ganaduak ere bizkar-dardar. Eguzkia, leen be-betik ibillia zai-guna, gaillurrerantza igoaz doa. Belarra, osfoak axkertux... Nere biotza bipildux...*

**Doiñu:** Xenpelar-en «Aizak i, mutil mañontzi...».

Irteerarik ez dun kalez  
ez nabilkizu ni oiñez,  
ez dut ezagun larri-eztenik...  
Ez dakust nik ziñez,  
porrot egiñaren legez,  
nere bizia iguiñez.  
Dena Goikoak egiña doart  
gizatiar onez.